



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2020KO URTARRILAREN 22KOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ FORMULATZEN BAITA HONAKO PLAN HAUEN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN IRISMEN-DOKUMENTUA: PLAN HIDROLOGIKOA, UHOLDE-ARRISKUA KUDEATZEKO PLANAK ETA KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN ESPAINIAKO ALDEKO ALERTA ETA BALIZKO LEHORTE EGOERETAKO JARDUKETA PLAN BEREZIA 2021-2027.

AURREKARIAK

2019ko urriaren 3an, Uraren Euskal Agentziak eskabide bat egin zuen, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egiten hasteko Plan Hidrologikoari, uholde-arriskua kudeatzeko planei eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako aldeko Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretako Jarduketa Plan Bereziari. 2021-2027 –aurrerantzean, Plana Berrikustea–, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betez.

Eskaerak dokumentazio hau jasotzen du: Planaren zirriborroa, legeria sektorialak eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa.

Administrazio publiko ukituei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea 2019ko urriaren 23 eta azaroaren 23 bitartean egin zen, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekreturen 9. artikuluan ezarritako moduan.

Behin jasotako txostenak eta eskabidean azaltzen den dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak badituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, bat etorrita hala abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikularekin nola urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikularekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ezartzea zein oinarrik arautuko duten ingurumenean efektu adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa, bermatuta ingurumenaren babes-maila handia izango duela, garapen jasangarria sustatzeko.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko efektuei buruzko analisia, hautabide egokienak hautatu ahal izateko; betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.



Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek hartzen edo onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean eta ur-baliabideak kudeatzeko direnean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei dagokienez, halako moldez non plan horien artean sartzen baita berrikustea Plan Hidrologikoa, uholde-arriskua kudeatzeko planak eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako aldeko Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretako Jarduketa Plan Berezia. 2021-2027.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, administrazio publiko ukituei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraiki, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskadiko Ingurumena Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ingurumen-efektuetarako bakarrik, Plan Hidrologikoaren, uholde-arriskua kudeatzeko planen eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako aldeko Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretako Jarduketa Plan Bereziaren irismen-dokumentua formulatzen da. 2021-2027. –Aurrerantzean, Plana Berrikustea–, honako baldintza hauen arabera:

1. PLANAREN XEDEA ETA EBALUAZIO-PROZESUAREN IRISMENA

Plan Hidrologikoaren (2021-2027) xedea da: Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa berrikustea, zeina urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen 2015-2021 aldirako eta indarrean baitago. Plana Berrikustearen helburu orokorra da: jabari publiko hidraulikoa eta urak behar bezala babestea eta haien egoera egokia lortzea, ur-eskaerak asetzea eta baliabidearen eskuragarritasuna areagotzea, haren kalitatea babestuz, hura erabiltzeko modua ekonomizatuz eta arrazionalizatuz, harmonian ingurumenarekin eta gainerako baliabide naturalekin. Era berean, plangintza hidrologikoak lagundu behar du uholde eta lehorteen efektuak leuntzen.

Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren –2021-2027, aurrerantzean UAKP– xedea da: berrikustea Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021), urtarrilaren 20ko 20/2016 Errege Dekretuz onartua. UAKPen helburua da: murriztea uholdeen ondorio negatiboak, oinarritzat hartuta administrazioek zein bere eskumen-eremuan aplikatu behar dituztela neurri-programak, kontuan hartuz 2000/60/EE Zuzentarauaren 4. artikuluan adierazitako ingurumen-helburuak.

Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Bereziaren -2021-2027; aurrerantzean, LPB– xedea da: berrikustea martxoaren 21eko MAM/698/2007 Aginduaren bidez onartutako plana. Haren helburu orokorra da gutxitzea balizko lehorte-egoeretan sortzen diren ingurumen-inpaktuak eta inpaktu ekonomikoak eta sozialak. Horretarako, adierazle hidrologikoen sistema bat ezartzen da, eta neurriak sartzen dira egoera horietan aplikatzeko.

Aipatutako hiru plan horiek oinarria dira ur-baliabideak modu integratuan kudeatzeko; horrenbestez, modu koordinatuan landu behar dira, Plan Hidrologikoan integratuz UAKP eta LPBren funtsezko alderdiak (memoria, neurri-programa eta araudia) eta dokumentu osoak eratuz eta PHri erantsiz.

2. INGURUMEN-HELURU ESTRATEGIKOAK, PRINTZIPIOAK ETA JASANGARRITASUN-IRIZPIDE APLIKAGARRIAK

Plana prestatzeko, funtsezko oinarritzat hartuko dira batez ere IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 delakoaren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, urriaren 16ko 211/2012 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

1. Kapital naturala, Biodibertsitatea
 - a. 1. helburu estrategikoa. Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz.

1.1. jarduera-ildoak: Natura-ingurunearen kontserbazioa eraginkortasunez integratzea sektore-politiketan.

Jarduera nagusiak:

- a. 1. Plangintzak eta sektore-araudiak berrikustea eta egokitzea, ekosistemak, fluxuak eta zerbitzuak kontserbatzea bideratzeko. Garrantzi berezia duen kasua da Natura 2000 Sarearen eta zerbitzu ekosistemikoen integrazioa.

1.2. jarduera-ildoak: Ekosistemen eta haien zerbitzuen galera murriztea.

2. Osasuna, ingurumena

- a. 3. helburu estrategikoa. Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.

3.1. jarduera-ildoak: Aurrera egitea inguruneen kalitatea hobetzeko bidean

Jarduera nagusiak:

- a. 31. Lortzea ondo egotea ur-masak, azalekoak (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lurpeko eta eremu babestuetakoak (bainatzeko tokiak, hartuneak, nitratoetikiko eremu kalteberak).
- b. 32. Kalitatezko uraren eskariari erantzun zuzena, jasagarritasun, aurrezpen eta eraginkortasunaren irizpideei jarraituz betiere, emari ekologikoen erregimenekin bateragarria den moduan, eta eskari horren kudeaketatresnak sustatuta.

3.2. jarduera-ildoak: Aurre egitea gero eta arduraren gehiago eragiten duten ingurumen-erronka eta -bektoreei (klimatek, substantzia berriak...)

Jarduera nagusiak:

- a. 35. Muturreko klima-fenomenoen efektuak geldiaraztea (lehortek, uholdeak...).
- b. 36. Indarra ematea osasunerako ingurumen-arriskuak monitorizatu, aurreikusi eta kudeatzeari, ingurumen-informazioko sistemak hobetuz.

3. Lurralde lehiakorra. Baliabideen efizientzia

- a. 4. helburu estrategikoa. Areagotzea lurraldearen iraunkortasuna

4.2. jarduera-ildoak: Azpiegitura berdeak garatu eta ezartzea, klimatek eragindako arintzeko eta horretara egokitzeko, eta onura ekologikoa,



ekonomikoak eta sozialak lortzea, natura lurraldean txertatzera bideratutako konponbideen bitartez.

Jarduera nagusiak:

- a. 42. Azpiegitura berdeak modu globalean planifikatzea, lurralde-antolamenduaren gidalerroekin eta lurraldeko eta sektoreko planekin bat etorriz.
- b. 43. Laguntzea udalak beren artean koordina daitezten azpiegitura berde partekatuak garatzeko.
- c. 44. Kapital naturalari buruzko informazioa eta haren erabilera eraginkorra erraztea udalei.

4.4. jarduera-ildoak: Lurraldean, energiaren, uraren, hondakinen eta lurzoruen erabilera arduratsua bultzatzea.

Jarduera nagusiak:

- d. 49. Etxeetan eta hiri-enpresetan aurrezteak eta efizientziak jokatzea bultzatzea.

3. ESPARRU GEOGRAFIKOA ETA INGURUMEN-ARLO GARRANTZITSUAK

Otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuko 3.2 artikulua definitzen du Kantauri Ekialdeko DH. Dekretu horren bidez, demarkazio hidrologikoen lurralde-eremua finkatzen da, eta 29/2011 Errege Dekretuak aldatu zuen; Euskal Herriko barne-arroak jasotzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneren pean daudenak, eta, bestalde, erkidego barneko arroak, zeinak Estatuko Administrazioaren eskumena baitira – Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bidez (KKH). Honako arro hidrologiko hauek osatzen dute Kantauri Ekialdeko DH:

- Barbadungo Unitate Hidrologikoa
- Ibaizabalgo Unitate Hidrologikoa (komunitate barneko eremua)
- Butroeko Unitate Hidrologikoa
- Okako Unitate Hidrologikoa
- Leako Unitate Hidrologikoa
- Artibaiko Unitate Hidrologikoa
- Debako Unitate Hidrologikoa
- Urolako Unitate Hidrologikoa
- Oriako Unitate Hidrologikoa (komunitate barneko eremua)
- Urumea Unitate Hidrologikoa (komunitate barneko eremua)
- Oiarzungo Unitate Hidrologikoa
- Bidasoako Unitate Hidrologikoa (komunitate barneko eremua)

Plana Berrikusteko eremuan, honako ingurumen-esparru garrantzitsu hauek ikusten dira:

- Balio natural bikainak izateagatik: ingurumen-babeseko araubideren bat duten gune guztiak, babesaren jatorria izan daitezkeela nazioarteko hitzarmenak edo arau orokorrak, ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legeria aplikatuta emandakoak, edo natura kontserbatzeko oinarritzko legeria, edo azaleko edo lur azpiko urak babesteko arau espezifikoa, edo zuzenean uraren mende dauden habitatak eta espezieak babesteari buruzkoak, baita naturaguneak ere, lurralde- eta hirigintza-plangintzatik datorren babes-araubideren bat dutenak.

Ur-ingurunearekin zuzenean lotutakoen artean:

- Interes bereziko ibai-tarte konektorea eta ekologia leheneratzeko intereseko ibai-tarteak, EAEko korridore ekologikoen sarekoak.
- Naturagune babestuak, Eremu Babestuen Erregistroan jasoak. Natura 2000 Sarea (KEB/BBE); parke naturalak, biotopoak, Txingudi Babesteko Plan Berezia, hezeguneak, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba.
- Eremu Babestuen Erregistroan jasotako beste elementu batzuk: ibai-erreserba naturalak, babes bereziko eremuak, natura- edo ingurumen-intereseko ibai-tarteak, babes bereziko hezeguneak, eremu sentiberak, hirietako ur-hartuneak, arrain-bizitza eta itsaski-bilketa babestekoak, bainu-eremuak, ur mineral termalak babestekoak.
- Batasunaren intereseko habitatak, ibai-eta estuario-eremuei lotuak.
- Interes Bereziko Eremuak, Eremu Babestuen Erregistroan jasoak.
- Flora mehatxua kontserbatu eta leheneratzeko eremuak, "Documentos técnicos para la conservación de la flora amenazada en la CAPV" oinarri hartuta identifikatuak eta datu espazialen azpiegituratik jaitsi eta kontsulta daitezkeenak.

Nolanahi ere, azpiegiturak egon daitezke ur-eremu zorrotzetik kanpo -esaterako, hartuneak, ur-biltegiak eta/edo hornikuntza- edota saneamendu-sareak-, eta eragin negatiboa izan dezakete bestelako elementu natural bikainetan; hau da, berari lotzen ez zaien elementuetan. Hori dela eta, elementu horiek ere kontuan hartu beharko lirateke ingurumen-eremu garrantzitsuen apartatu honetan.

Zentzu horretan, gaitasun agrológico handiko modura sailkatu eta babestutako lur-sailak identifikatuko dira, Nekazaritza eta Elikadura Politikako 17/2008 Legearen arabera.

- Balio kultural garrantzitsuengatik: Babes Bereziko edo Ertaineko ondasunak, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen arabera (EHAA, 93. 2019.05.20), zeinak indargabetzen baitu uztailaren 3ko 7/1990 Legea, salbu III. tituluaren VI. kapitulua, ondareari buruzkoa, eta V. tituluaren I. kapitulua, artxibo-zerbitzuari buruzkoa. Gainera, beste ondasun batzuk ere kontuan izan behar dira, babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasun deklaratzeko proposatuak eta Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroan kontsultatu beharrekoak.
- Eurretan detektatzen diren egungo edo etorkizuneko ingurumen-arriskuengatik:

- Historikoki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten lur-sailak eta, horrenbestez, arriskutsuak izan daitezkeenak etorkizuneko erabiltzaileentzat edota ingurumenerako.
- Uholde-eremuak, 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denbora dutenak. Uholde-arrisku potentzial garrantzitsua duten eremuak
- Eremu higagarriak edo igatzeko arriskua dutenak
- Interes hidrogeologikoko eremuak
- Giza kontsumorako ura hartzeko eremuak, espezie urtar ekonomikoki garrantzitsuak eta aisia-erabilerako eremuak babestea.
- Kaltebera izendatutako eremuak (nekazaritza-iturrietako nitratoak direla-eta)
- Hiriko hondakin-urekiko eremu sentikorrek, Eremu Babestuen Erregistrokoak. Kantauri Ekialdeko DHko PHkoak.

4. JARDUKETAK KOKATZEKO EREMU DESEGOKIAK

A priori, ingurumen fisikoan efektuak dituzten jarduketak –esaterako, egiturazkoak– kokatzeko eremu desegokitzen joko dira: aurreko apartatuan jasotako ingurumen-arlo garrantzitsu guztiak, bai eta beste hainbat eremu ere, non erabilera edo neurri jakin batzuk –Plana Berrikustean aurreikusitakoekin pareka daitezkeenak– mugatu edo debekatzen baitituzte dagokien lurralde-plangintzak eta eremu funtzionalen LPk, itsasertza, hezeguneak, nekazaritza eta basoa babestu eta antolatze LPSk eta ibaiertzak eta errekek babestu eta antolatzeok–, Natura 2000ko eremuei lotutako beste arau-xedapen batzuk –esaterako, hegaztientzako kontserbazio-eremu bereziak eta babes bereziko eremuak (HKEB), ur-ingurumenari lotuak– edo beste eremu batzuei lotuak: natura-baliabideen antolamendu-planak eta parke naturalen (eta biosfera-erreserbaren) erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak; eremu babestuetako plan bereziak, espezie mehatxatuak kudeatzeko planak.

Ondorioz, lehenetsuna eman beharko zaie beste eremu garrantzia gutxiagoko batzuei, hala nola lurzoru antropizatuei eta lurzoru poluituei, zeinak garrantzia gutxi baitute ikuspegi naturalistikotik, kulturaletik edo ingurumen-arriskutik baina bideragarriak baitira teknikoki eta ingurumen-aldeetik, ingurumen fisikoaren gaineko efektuak dituzten jarduketak egiteko, plangintza hidrologikoari, uholde-arriskuaren kudeaketari eta alerta- eta balizko lehorte-egoerei lotuak.

5. ALDEZ AURRETIK EGINDAKO KONTSULTETAKO ERANTZUNEN INGURUMEN-AZTERKETA LABURRA.

Administrazio publiko ukituei eta herritar interesdunei egindako kontsulten fasean, hainbat txosten eta ekarpen jaso ditugu. Jarraian, horien edukiaren laburpena aurkeztuko dugu, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukia antolatzen duten apartatuen arabera antolatuta, irismenari, xehetasun-mailari eta espezifikotasun-mailari dagokienez.

- Ingurumenaren egungo egoeraren eta izan lezakeen bilakaeraren alderdi garrantzitsuenak deskribatzea.

- Planean jaso diren lurzoru poluituen balizko afekzioari dagokionez, kontuan izan behar da ea badiren lur-sail batzuk, historikoki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituztenak eta, beraz, kaltegarriak izan daitezkeenak etorkizuneko erabiltzaileentzat edo ingurumenarentzat.
 - Egiaztatu behar da ea badiren ala ez babes bereziko edo ertaineko ondasunak, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen arabera (EHAA, 93.-2019.05.20), informazioari lotutako eremuan,. Lege horrek indargabetzen du uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskal Kultura Ondarearena, kapitulu hauek izan ezik: II. tituluaren VI. kapitulua, ondasun dokumentalarena, eta V. tituluaren I. kapitulua, artxibozerbitzua. Gainera, beste ondasun batzuk ere egon litezke, babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasun deklaratzeko proposatuak, eta Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroan kontsultatu beharrekoak.
- Planarentzat garrantzitsua den edozein ingurumen-arazo, ingurumen-garrantzia bereziko guneak barne –naturaguneak eta espezie babestuak, adibidez–, eta Natura Sareko eremuak.
- Igarri da flora mehatxatua kontserbatzeko edo leheneratzeko eremuen deskripzioa falta dela, zuzendaritza honek identifikatu zuena oinarritzat hartuta “Documentos técnicos para la conservación de la flora amenazada en la CAP” (Aranzadi, 2011). Dokumentu hori datu espazialen azpiegituratik jaitsi eta kontsulta daiteke.
 - Kontuan hartu beharko lirateke ingurune-baldintzak guztiak, balio natural bikainak izateagatik ur-inguruneari lotuta daudenak, zeren, batzuetan, elementu natural horiei negatiboki eragiteko moduan kokatzen dira hartuneak, ur-biltegiak edota hornikuntza- edota saneamendu-sareen lineak.
- Ingurumena babesteko helburuak deskribatzea eta justifikatzea nola txertatzen diren haiek planean.
- Gomendagarria lizateke espresuki aipatzea nekazaritzako lurak babestu behar direla, eta batez ere gaitasun agrologiko handiko modura sailkatu eta babestutako eremuak, eta aipamen bat ere egin beharko litzaieke hala Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17 /2008 Legeari nola balio handiko eremuak babesteko araubide bereziari, zeina hark hedatzen baitu.
 - Hiri-hornikuntzari eta biztanleria sakabanatuari dagokionez, kontuan hartu beharko lirateke Osasun Sailak ezartzen dituen helburu eta jomuga hauek:
 - EAEko biztanleria guztiak izan behar du kalitatezko kontsumo-ura izateko irispide unibertsala (inor alboratu gabe arrazoi sozialak edo bestelakoak direla-eta), eta azpimarratu behar da biztanleria sakabanatuek kalitate kaskarragoko ura izaten dutela.
 - Bermatu behar da ingurumen-ingurunearen kalitatea, batez ere urarena; horretarako, ingurumen-arriskuak kontrolatu behar dira eta haien jarraipena egin.
 - Kontuan hartu behar dira zenbait alderdi sanitario, erlazionatuta daudenak hartze-arriskuekin eta eremuak babestearekin gune txikiagoak hornitzeko neurriak garatzean.
 - Añarbe Beheko konponketei ekin behar zaie. Aurretik beste azpiegitura alternatibo bat izan behar da, guztira 300.000 biztanle hornitzeko. Hiri-

hornikuntzako aukera hori bideratuta egon behar da jatorrian kalitate hobea duten urak erabiltzera.

- Biztanleria sentsibilizatu behar da ur-eskasiaren arazoaz eta uraren erabilera arrazionalaz.
- Uraren kalitatea zaindu behar da EAEko hornikuntzetan, batez ere balizko arriskuak hobeto karakterizatzeko beharrezkotzat jotzen diren parametroak zaindu behar dira, nabarmenduz desinfekzioetik datozen azpiproduktuen aitzindariak –uraren kalitatea galtzeko duten inportantziagatik–, mikroplastikoak eta izan daitezkeen beste kutsatzaile berri batzuk, esaterako antibiotikoak.
- Eraginkortasunez ezarri eta hobetu behar dira segurtasun-planak, hartunetik bertatik kontsumitzailearen txorroteraino, eragile guztien inplikazioa sustatuz. Indartu egin behar da Kontrol eta Zaintze Sarea, 178/2002 Dekretuak arautzen duena.
- Murriztu egin behar da jolasguneei lotutako morbiditatea; horretarako, baldintza higieniko sanitarioak kontrolatu behar dira, hala uraren kalitatearenak nola ingurunearenak. Horrexegatik dira inportanteak Plana Berrikusteko neurriak, zeren haien helburua da saneamendu-sistemak hobetzea (arintze-guneak, hondakin-uren araztegiak), bainu-uren kalitatea kutsatzea edo galtzea ekidinez.

6. INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK ETA HAIEN IRISMENA.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezartzen da zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren gutxieneko edukia, osatu beharko dena urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin. Aurrekoaren arabera, eskatutako edukiek eduki eta egitura hau izan beharko dute:

6.1. Proposatutako planaren deskribapena.

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak:

- a) Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko prozedura, eta behin betiko onespeneren sustatzailea, organo sustatzailea eta organo substantiboa identifikatuko dira.
- b) Identifikatuko da ea zer plan edo programa dauden hierarkikoki Planaren gainetik, zeinaren helburu eta zehaztapenak haren bidez garatzen baitira. Azaletik



deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak. Plana baino hierarkian gorago dauden plan edo programen onarpen-egintza eta data adieraziko dira, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez.

- c) Planaren helburu zehatzak deskribatuko dira.
- d) Hierarkian Planaren gaineratik dauden planek edo programek ingurumena babesteko izan ditzaketen irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehaztuko dira, planari aplikatzekoak badira.

Besteak beste, aipatu beharko da zein den balio agrologiko handiko lurzoruen babes bereziko erregimena, Nekazaritza eta Elikadura Politikako 17/2008 Legearen arabera.

Gainera, kontuan hartu beharko dira Osasun Sailak ezartzen dituen helburu eta jomuga hauek, hiri-hornikuntzari eta biztanleria sakabanatuari dagokionez:

- EAEko biztanleria guztiak izan behar du kalitatezko kontsumo-ura izateko irispide unibertsala (inor alboratu gabe arrazoi sozialak edo bestelakoak direla-eta), eta azpimarratu behar da biztanleria sakabanatuek kalitate kaskarragoko ura izaten dutela.
- Bermatu behar da ingurumen-ingurunearen kalitatea, batez ere urarena; horretarako, ingurumen-arriskuak kontrolatu behar dira eta haien jarraipena egin.
- Kontuan hartu behar dira zenbait alderdi sanitario, erlazionatuta daudenak hartze-arriskuekin eta eremuak babestearekin gune txikiagoak hornitzeko neurriak garatzean.
- Añarbe Beheko konponketei ekin behar zaie. Aurretik beste azpiegitura alternatibo bat izan behar da, guztira 300.000 biztanle hornitzeko. Hiri-hornikuntzako aukera hori bideratuta egon behar da jatorrian kalitate hobea duten urak erabiltzera.
- Biztanleria sentsibilizatu behar da ur-eskasiaren arazoaz eta uraren erabilera arrazionalaz.
- Uraren kalitatea zaindu behar da EAEko hornikuntzetan, batez ere balizko arriskuak hobeto karakterizatzeko beharrezkotzat jotzen diren parametroak zaindu behar dira, nabarmenduz desinfekziotik datozen azpiproduktuen aitzindariak –uraren kalitatea galtzeko duten inportantziagatik–, mikroplastikoak eta izan daitezkeen beste kutsatzaile berri batzuk, esaterako antibiotikoak.
- Eraginkortasunez ezarri eta hobetu behar dira segurtasun-planak, hartunetik bertatik kontsumitzailearen txorroteraino, eragile guztien inplikazioa sustatuz. Indartu egin behar da Kontrol eta Zaintze Sarea, 178/2002 Dekretuak arautzen duena.

- Murriztu egin behar da jolasgune horiei lotutako morbiltatea; horretarako, baldintza higieniko sanitarioak kontrolatu behar dira, hala uraren kalitatearenak nola ingurunearenak. Horrexegatik dira inportanteak Plana Berrikusteko neurriak, zeren haien helburua da saneamendu-sistemak hobetzea (arintze-guneak, hondakin-uren araztegiak), bainu-uren kalitatea kutsatzea edo galtzea ekidinez.
- Ingurumen-ebaluazio estrategikoak, halaber, baloratu beharko du jarduerak nola integratzen dituzten ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak, txosten honen 3. apartatuan jasotzen direnak (**Ingurumen-helburu estrategikoa, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak**). Era berean, egoki irizten dituen beste batzuk ere baloratu beharko ditu, eta identifikatu zer neurri/irizpide zehatz hartzen diren helburuok betetzeko.
- e) Plan edo programa hierarkikoki goragoko horiei ingurumen-ebaluazioko prozeduraren bat ezartzen bazaie, aipatu beharko da zein diren prozedura horiek amaitzeko eman ziren ingurumen-adierazpen estrategikoen datak eta jaulkipen-egintzak, eta adieraziko da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren eta zer estekatan kontsulta daitezkeen. Kasu horretan, zehaztu beharko da zein diren planaren helburuan edo eremuan eragiten duten ingurumen-ebaluazioaren adierazpen horien zehaztapenak, bai eta ingurumen-ebaluazioko irizpideak ere, ingurumen-adierazpen estrategikoetan edo bere garaian indarrean zegoen araudia aplikatuz igorritako dokumentu baliokideetan ezarritakoak.
- f) Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (erkidegokoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), Plana diseinatzeko aplikagarriak direnean.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.

- a) Adieraziko da zer plangintza-mota garatzen den Planean: lurralde-edo hirigintza-antolamendukoa, egiturazkoa edo xehatua, edo bestelakoa. Plan sektoriala bada, zehaztu beharko da zein sektorekoa den.
- b) Deskribatuko da zer aurreikuspen dituen planak lurzorua eta baliabideak erabiltzeko araubideari dagokionez, eta zer ekintza edo proiektu aurreikusten den Plan garatzeko. Planaren tipologiaren menpe egongo dira aurreikuspen horien izaera eta zehaztapenak.

Planak zehaztapenak jasotzen dituenan zenbait erabilera, jarduera eta proiektuetara (jarduera ekonomikoak, hirigintza-garapenak, azpiegitura handiak, ekipamenduak, proiektu sektorialak eta abar) zuzendutako eremuak definitzeko, dagokien lurralde-eremuetan deskribatu eta kokatuko dira. Hala badagokio,

zehaztu eta kokatuko da zein eremutan aurreikusten den hirigintza-garapenak egitea etorkizunean.

Hala dagokionean, proiektuen izaerari buruzko aurreikuspena egingo da, zeinaren bidez egikarrituko baitira Planeko estrategiak, jarraibideak eta proposamenak. Bereziki, Planaren zehaztapenak aztertuko dira, kokapenari, tipologiari, neurriei, funtzionamenduari edo baliabide naturalen esleipenari buruzkoak, Planaren esparruan etorkizunean exekutatu diren proiektuei dagokienez.

Zentzu horretan, ulertu behar da proiektu bat dela aurreikus daitekeen edozein jarduera; izan ere, hala definitzen du ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruz indarrean den araudiak. Eta ez da nahastu behar dokumentu teknikoarekin. Izan ere, proiektua prestatzeko edo exekutatzeko idazten da, eta halaxe deitzen zaio zenbait arautan. Ondorioz, ingurumen-dokumentu estrategikoan, proiektu terminoaren adiera izango da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko araudiak ezartzen duena.

Epigrafe honetan jasotako informazioak isla kartografiko egokia izango du eskala egokian, eta lurraldearen erabilera erakutsiko du, bai eta Planean zer ekintza, aurreikuspen eta jarduketek eragin ditzaketen efektu garrantzitsuak ingurumenean. Hala badagokio, informazio kartografikoa jaso beharko da proiektuen kokapen eta tamainari buruz.

- c) Deskribatu eta lokalizatuko da Planeko zer ekintzak izan dezakeen efektua ingurumenean, eta hierarkizatuko dira eraginik handiena dutenetik gutxiago dutenetara, kontuan hartuz haien kokapen zehatza, izaera, tamaina, funtzionamendu-baldintzak eta baliabide naturalen kontsumoa. Kode bat esleituko zaio Planean deskribatzen den ekintza bakoitzari, eta IAEn erreferentzia behar duten hurrengo apartatuetan erabiliko da kode hori.
- d) Adieraziko da zer garapen aurreikusten den Planarentzat plana behin betiko onartu ondoren, eta plangintzaren ondorengo faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da nola egin plana garatzeko tresnen ingurumen-ebaluazioa.
- e) Nolanahi ere, Plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan deskribatutako ekintzetarako zehaztuko da.

6.1.3. Planifikatzeko aukerak.

- a) Azaletik deskribatuko da zer aukera ezberdin hartu den kontuan Plana emateko prozesuan. Aukera horiek teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak izan behar dute, eta honako alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokapena, garapen teknikoa edo teknologikoa, denbora-garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

- b) Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzetik eratorritako proiektuen eta Planeko ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta IAEko 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.
- c) Laburpen bat jasoko da adierazteko zergatik baztertu diren plangintza-aukera batzuk eta zergatik hautatu den azkenean proposatutako aukera.
- d) Behar denean, modu kartografikoan jasoko dira kontuan hartu diren aukerak.

6.2. Ingurumenaren egungo egoeraren ezaugarriak zehaztea.

Deskribatuko da ingurumen-kalitateko zer elementu dauden Planaren eraginpeko eremuan. Elementu abiotikoak eta biotikoak deskribatuko dira, bai elementu mota bakoitzaren sektore-ikuspegitik, bai haien interakzioen ikuspegitik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrutzat, antolamendu-esparru osoaz gain, haren ingururik hurbilena hartu behar da, Planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuta. Bakarrik deskribatuko dira Planaren antolamendu-eremutik oso kanpo geratzen diren eremuak, baldin eta aurreikusten bada ingurumen-eragina nabarmena izango dela eremu horietan.

Ingurunearen kalitatearen alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo erreferentziako beste dokumentu batzuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egiletza eta, hala badagokio, zein estekatatik kontsulta daitekeen lana osorik.

IAEk planoak jasoko ditu, eskala egokian, eta ingurunearen aldagaiak jasotzen dituztenak.

6.2.1. Ingurumen-egoera deskribatzea

- a) Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

Azken faktore horri dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako eta babestutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

- b) Natura-ondarea. Adieraziko da ea dagoen natura-intereseko eta interes ekologikoko elementurik: landaredia, baso autoktonoak, habitat interesgarriak, basoko flora eta fauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak, hezeguneak, onura publikoko mendiak eta babesleak.

Ahal denean, datu kuantitatiboak emango dira, hala nola azalera, populazioaren tamaina, bikote edo banakoen kopurua eta garrantzi erlatiboa EAEko edo haren banaketa-eremu naturaleko populazio osoaren azalera eta tamaina osoari dagokionez. Halaber, honako hauei buruzko datuak emango dira: kontserbazio-egoera, interes-maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak eta Plana gauzatzekoan areagotu daitezkeenak.

Apartatu hau egiteko, natura-intereseko elementuen inbentarioak, katalogoak edo erregistroak berrikusiko dira (plan hidrologikoetako eremu babestuen erregistroak, hezeguneen inbentarioak, baso-inbentarioak, mendien katalogoak edo espezieen zerrenda gorriak, besteak beste).

Egokia denean eta nolahi ere Planean aurreikusitako proiektuek eragin handia izan dezaketenean babestuta dagoen edo babes-erregimenen bat duen naturagune batean –EAEko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 13. artikuluan eta Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 30., 42. eta 50. artikuluetan jasotako batean–, identifikatuko da zer gune dauden Planaren esparruan edo esparru horretatik gertu. Kontuan hartuko da gertutasunaren-kontzeptua aldatzen dela, baldin eta efektu jakin batzuk maximizatzen laguntzen duten bektoreak badaude; esaterako, planaren edo programaren eremua naturagune babestuaren gorako uretan kokatuta egotea. Halako kasuetan, honako informazio hau jaso beharko da:

- Plano bat, Planaren eragin-esparrua biltzen duena eta esparru horretan eta haren inguruan dauden babesguneak islatzen dituena.
- Adierazi beharko da zein xedapenetan izendatzen den gunea babesteko figura eta, hala badagokio, zer erreferentzia duen haren argitalpenak aldizkari ofizialean.
- Zein den gunea antolatzeko eta kudeatzeko tresnen erreferentzia, tresna horiek onartzen dituen arau-xedapena, eta zer erreferentzia duten Aldizkari Ofizialeko argitalpenean; era berean, adieraziko da zein loturatan kontsultatu daitezkeen.
- Labur deskribatuko da zein diren gunea izendatzea eta babestea eragin duten balio nagusiak, hala nola habitatak eta espezie edo elementu bereziak (geologikoak, paisaiakoak etab.).
- Administrazio-organoa identifikatuko da, eta, hala badagokio, gunea kudeatzeko zeregina duen administrazio-unitatea.

Zentzu horretan, Plana Berrikusteko aplikazio-eremuaren ingurumen-egoera deskribatzen duten elementu naturalen artean, aztertu beharko da zein diren flora mehatxatua kontserbatzeko eta leheneratzeko eremuak, oinarritzat hartuta “Documentos técnicos para la conservación de la flora amenazada en la CAPV” izeneko dokumentua (Aranzadi, 2011). Dokumentu

hori GeoEuskadi - Euskadiko datu espazialen egituratik jaitsi eta kontsulta daiteke.

Gainera, kontuan hartu beharko lirateke ingurune-baldintzak guztiak, zeinak, balio natural bikainak dituztelako, lotuta baitaude ur-inguruneari, zeren, batzuetan, elementu natural horiei negatiboki eragiteko moduan kokatzen dira hartuneak, ur-biltegiak edota hornikuntza- edota saneamendu-sareen lineak.

- c) Paisaia. Kontuan hartuko dira paisaia-intereseko guneak, hala nola mugarri bisualak eta pertzepzioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk. Paisaia-katalogoak erabiliko dira, halakorik egonez gero.
- d) Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.

Halaber, deskribatuko da zer ingurumen-arazo antzeman den airearen, uraren edo lurzorua kalitatean, egoera akustikoa barne. Identifikatuko da ea kutsagarriak izan daitezkeen iturririk dagoen eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan duen lurzorurik dagoen, eta aztertuko da zein den baliabide naturalen erabilgarritasuna, bereziki urarena.

Hala dagokionean, identifikatu eta kokatuko da zer biztanlegune dagoen, batez ere aipatutako arrisku eta ingurumen-arazoak jasan ditzaketenak.

- e) Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes maila adieraziko dira. Era berean, aurkeztuko da zein den kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa ematen dizkion arau-xedapena ere. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

6.2.2 Sintesia: ingurumen-alderdi garrantzitsuak.

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, aztertuko da zein den ebaluazio-eremuko ingurumenaren egungo egoera, eta labor-labor jasoko dira ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak; besteak beste, ebazpen honen hirugarren apartatuan (*Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak*) deskribatuak. Zehatz-mehatz adieraziko da zer ingurumen-alderdik jasan dezaketen etorkizunean Planeko ekintzen eragina.

Horregatik, jakin beharko da ea oinarritzko prozesu ekologikorik dagoen, eten edo aldatu daitezkeenik Plana gauzatzean. Arreta jarri beharko da ingurumenari dagokionez interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, eta kontuan hartuko da non kokatuko diren eta zer ezaugarri izango

dituzten planaren ondorioz sortuko diren proiektu edo ekintzek. Saihestuko da xehetasunez deskribatzea zein diren Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak ez diren alderdiak, eta ahalegin handiagoa eskainiko zaie ingurumen-arloko elementu, prozesu, arazo eta arrisku garrantzitsuei.

Kontuan hartuko da ingurumen fisikoaren zer faktorek eragin dezakeen edo garrantzitsu izan daitekeen Planean aurreikusitako proiektu eta ekintzen efektuak ebaluatzeko, hala nola ur-masen eta ur-guneen egoera, lurzoruen gaitasun agrologikoa, substratuaren iragazkortasuna eta egonkortasuna, eta ebaluazioan kontuan hartu beharreko ingurune abiotikoaren beste edozein alderdi.

Arreta jarriko zaie espezieen funtzio ekologikoei eta ziklo biologikoari eusteko garrantzitsuak diren eremu eta habitatei (elikatzeko, ugaltzeko, atsedean hartzeko, sakabanatzeko edo populazioen arteko truke genetikorako garrantzitsuak diren eremuak). Kontuan hartuko da lehentasunezko habitat eta espezieak daudela, bakanak edo gutxi ordezkatuak, kalteberak edo desagertzeko arriskuan daudenak eta, beraz, babestu beharrekoak.

Era berean, natura-ingurunea eta paisaia babesteko beste alderdi batzuk ere hartuko dira kontuan.

Halaber, arrisku jakin bat prebenitzeko edo murrizteko aurreikusitako plan edo proiektuei buruz eskura dagoen informazioa emango da, bai eta ingurumen-arriskuei eta hautemandako egoera problematikoei dagokienez ezagutzen den edozein administrazio-jarduerari buruzkoa ere, arreta berezia jarrita Plana gauzatzean gehitu, areagotu edo beste bitarteko batzuetara transferitu daitezkeen gaietan.

Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

6.3. Ingurumen-efektuak.

Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da Planak zer efektu aurreikusteko modukorik duen IAEn 6.2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira.

Planaren efektuak identifikatu eta ezaugarritzeko, aztertuko da zer interakzio dauden lanean aurreikusitako ekintzen eta haiek eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoen artean, eta zer ingurumen-arazo edo arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarriak deskribatzean, zehatz-mehatz adierazi beharko da zer motatako efektua den, honako hauek berezita: bigarren mailako efektuak, metatzekoak, sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta behin-behineko efektuak.

IAEren 1.2.c) apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ondoriozko ingurumen-efektuak deskribatuko dira, eta espresuki adieraziko da zer kode esleitu zaien ekintzei apartatu horretan. Hala dagokionean, argi eta garbi adieraziko da zer efektu eragin dezakeen ekintza bat baino gehiago bateratzeak.

Era berean, hala dagokionean, zehaztu beharko da ea atzemandako efektuak eragiten dieten ala ez Natura 2000 Sarean eta IAEren 6.2.1. apartatuan jasotako beste babesgune batzuetan jasotako elementu zaindu beharrekoak. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen efektuak behar bezala identifikatzeko eta egon daitezkeen ziurgabetasunak argitzeko. Horretarako, natura kontserbatzeko arloan eskumena duten erakundeek argitaratutako gida metodologikoak eta oro har onartzen diren beste dokumentu tekniko batzuk aplikatuko dira.

Era berean, banan-banan bereziko dira ingurumen-efektu guztiak, biztanlerian, giza osasunean edo ondasun materialetan ondorio kaltegarriak eta garrantzitsuak izan ditzaketenak.

Planari lotutako karbono-aztarna ebaluatuko da.

Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- a. Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- b. Efectuen larritasuna eta irismen espaziala (adibidez, zenbateko azalera har dezaketen eraginpean).
- c. Eragina jasan lezakeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri bereziak izatea.
 - IAEko 6.2.1 apartatuan jasotako babes-espazioen urrakortasuna, kontuan hartuta zer efektu izan ditzaketen zaindu beharreko elementuetan (habitatak, espezieak eta prozesu ekologikoak) eta zein neurritan oztopa edo eragotz dezaketen Planak kontserbazio-helburuak lortzea.
 - Ingurumen-baldintza txarrak egotea, aire, ur edo lurzoruan kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditu ahal izateko.
 - Planak zein neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatuko dira, datu neurgarriak emanaz Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzeak eragiten dituen ingurumen-faktore deskribatuen egoera-aldaketei buruz. Hala badagokio, efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

Halaber, ahal bada, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira; era berean, zehaztu egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

Adieraziko da ea antzemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

Planak hirigintza-garapen bat txertatzen badu etorkizunerako, aztertu beharko da ea betetzen diren aurreikusitako erabilerako ezartzen diren kalitate akustikoko helburuak, eta, horretarako, indarrean dagoen araudian ezarritako metodologia erabiliko da, ebaluatzen den antolamendumota bakoitzerako egokituta (egiturazkoa edo xehea).

Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-efektuak, eta nabarmenduko da haien garrantzi erlatiboa.

6.4. Babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak.

Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi diren IAEn 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko.

Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-efektu garrantzitsurik sortuko Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, kultura- eta paisaia-ondarea babestea, natura-arriskuak preberitzea eta atzemandako ingurumen-arazoak hobetzea eta egokitzea.

Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatuko dira, eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi den efektu bakoitzarekin erlazionatuko dira, espresuki aipatuta IAEn 6.3 apartatuan horretarako esleitutako kodea.

Hala badagokio, zehaztuko da ea neurria proposatu den prebenitzeko, zuzentzeko edo konpentsatzeko Natura 2000 Sareko leketan eta IAEn 6.2.1. apartatuan jasotako beste babesgune batzuetan zaindu beharreko elementuen gaineko efektuaren bat.

Deskribatzen den neurri bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori IAEn hurrengo apartatuetan erabiliko da, erreferentzia erabili behar bada.

Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki adieraziko da Planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, komenigarri edo egingarria denean haiek aplikatzea plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo Plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan.

Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere bilduko da, eta adieraziko da nor den haiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programak Planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurriak jasoko ditu. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:

- Gainbegiratzeko behar bezala ezartzen diren ala ez neurriak, Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak aurreikusteko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita daudenak.
- Zaintzeko zein den ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera eta plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera.
- Egiatzatzeko zein diren Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-efektuak, azkar identifikatzeko aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak eta neurri egokiak hartu ahal izateko haiek saihesteko edo zuzentzeko.
- Atzemateko ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

Jarraipen-neurriak identifikatu eta kodetu beharko dira, eta bat etorri beharko dira IAEn 6.4. apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin. Jarraipen-neurri bakoitzarentzako, honako hauek zehaztuko dira:

- Jarraipenaren xede diren ingurumen-alderdiak edo -aldagaiak, eta haiek neurtzeko adierazleak (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak).
- Zein diren gehieneko mugak edo erreferentzia-mailak parametro kuantifikagarrientzat.
- Adieraziko da planaren zein gauzatze-fasetan egingo den kontrol bakoitza, eta nor diren eragileak edo arduradunak.
- Hala badagokio, zehaztu egin beharko da ea neurria proposatu den jarraipena egiteko Natura 2000 Sareko lekuetan kontserbatu beharreko elementuen gaineko efektuei eta IAEn 6.2.1. apartatuan jasotako beste babesgune batzuei.

6.6. Ingurumen-sintesia

Apartatu honetan, deskribatuko da zelan txertatu ingurumen-alderdiak Planean.

Xehe-xehe aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, IAEn 6.1.1 f) apartatuan eta, hala badagokio, IAEn 6.1.1 d) eta 6.1.1 e) apartatuetan deskribatuak.

Aztertu egingo da, gainera, zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean efektu adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira, egiatzatzeko ezen, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak planean txertatzen badira, oso arrisku txikia dagoela efektu garrantzitsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, IAEn gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

Modu espezifikoan aztertu bada ea eraginik izan dezakeen Natura 2000 Sareko guneean edo beste babesgune batzuetan, hari buruzko sintesi bat jasoko da apartatu honetan, zehaztuta nola galarazi edo murriztu den horrek eragitea gunea hautatzea eta babestea eragin duten balio naturistikoei, kontserbazio-helburuei eta Natura 2000 Sarearen koherentzia globalari.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

IAEk informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzia.

Apartatu honi, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio; bestela, erreferentziak jaso beharko dira, informazio hori erraz eskuratu ahal izateko.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultetakoak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarri beharko du plan honen hasierako bertsioa, IAerekin batera; gutxienez, 45 egunez. Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak, jendaurreko informazioaren izapidearen pean jartzearekin batera, kontsulta egin beharko die administrazio eta interesdun ukitei. Organo sustatzaileak kontsulta egin beharko die organismo hauei:

Estatuko Administrazio Orokorra:

- Euskadiko Itsasertz Demarkazioa

Eusko Jaurlaritza:

- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa, Ihobe.

Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia
- Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Mendietako eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia

Bizkaiko Foru Aldundia:

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Natura Ondare Zerbitzua
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Baliabide Naturalen Zerbitzua; Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua; Mendien Zerbitzua; Baliabide Naturalak, Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzua

- Kultura Zuzendaritza Nagusia

Arabako Foru Aldundia:

Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritza Nagusia. Natura Ondare Zerbitzua

- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Baliabide Naturalen Zerbitzua; Mendiko Zerbitzua;
Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua

Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.

Elkarteak:

- Ekologistak Martxan Araba
- Ekologistak Martxan Bizkaia
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen eraginpean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera; gutxienez, 45 egunez.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionala eta goimailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egin beharko dute azterketa, eta hark Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterketaren egileak identifikatu beharko dira, eta haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazi. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Txostenaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira haiek, salbu eta Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuenak.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute beren artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada, erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana errazteko eta ez eragozteko.
2. Arreta berezia jarri beharko da adierazteko kasu bakoitzean zer datu erlazionatu behar diren beren artean dokumentu teknikoen apartatu desberdinetan (esaterako, apartatu batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak; bi kasuetan, izen berarekin aipatu beharko dira ekintzak).
3. Beharrezkoa bada, adierazi behar da zein iturritatik lortu diren datuak.



4. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten apartatuetan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, georreferentziatuta.
5. Anlisi tekniko egokia errazteko, bistaratzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da *shape* formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilia), zeinak ezingo baitu 10 Mb gainditu.
6. Plano guztiak identifikatu behar dira kodearekin eta tituluarekin. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten izan akatsik.
8. Dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak. Erreferentzia horiek argi eta garbi jarri behar dira, kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan.
9. Informazio jakin bat aurkezten bada dokumentuko apartaturen bat zuzentzeko eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi behar du jatorrizko dokumentuko zer kapitulu, orri, epigrafe, apartatu, lerrokada, esaldi, koadro, irudi, plano eta abar jo behar den ezeztatutzat edo ordeztutzat konponketa edo zuzenketaren bidez. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eska dakieke, kontraesaneko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.
10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatzekoak diren fitxak eta formularioak erabilia, zeinak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura baitaitezke; zehazki, helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>
11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartuko badira.
12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibidea txertatuko da, adierazitako apartatuetako bakoitza zer orrialdetan dagoen zehaztuta. .pdf dokumentu baten aurkibidea aurkeztean,

adierazitako orrialde-zenbakia bat etorri beharko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazten denarekin.

13. Organo sustatzaileak beti ziurtatu beharko du datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela datuak transmititzen dituenean.

Bigarrena. - Jakinarazi bekio ebazpen hau URA-uraren Euskal Agentziari.

Hirugarrena. - Agin bedi ebazpen hau argitara dadila Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean.

P.D.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental
IVAN PEDREIRA LANCHAS

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 22a.